

**DECRETO N° 1297**  
(P003409)

**ACUERDO:**

Udalbatzak, bi mila eta bederatziko maiatzaren hogeita zazpian, eginiko bilkuran, besteren artean, honako akordioa hartu zuen, A.F.A. ren 206 artikuluaren salbuespenarekin:

“Gitzat harturik 2009PEDE0001 expedientea, ALZUKAITZ 7.2.02 ESPARRUAN (6. lursaila) Xehetasun Azterketa.

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día veintisiete de mayo de dos mil nueve, adoptó, con la salvedad del Art. 206 del R.O.F., entre otros, el siguiente acuerdo:

“En relación con el expediente nº 2009PEDE0001 relativo al Estudio de Detalle en el ÁMBITO 7.2.02 ALZUKAITZ.(Parcela 6)

**Honako ekintza hauek ikusirik:**

-2009ko martxoaren 17ko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, ALZUKAITZ 7.2.02 esparruaren (6. lursaila) Xehetasun Azterketa hasiera batez onartzea erabaki zen.

Espedientea jende aurrean jarri zen informazio tramiterako, 2009ko apirilaren 6ko 64. GAOn eta 2009ko apirilaren 2ko Diario Vasco egunkarian iragarkiak argitaratuz, eta ez da alegaziorik aurkeztu.

-Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eginiko Xehetasun Azterketa formulatu da 6. lursailean eraikitzeko baldintzak finkatzeko helburuarekin, aipatu esparruko Hiri Antolaketaako Plan Berezian EKIPAMENDU kalifikazioa baitu, sestra gaineko bolumena aldatuz, beraz, plantako okupazioa eta lerrokatzeak eta sestrak zuzendu egingo dira, ezarri nahi den hezkuntza alorreko eskaintzaren baldintzei erantzuteko.

Plantako 360m<sup>2</sup>-ko okupazioaren aurrean

**Resultando los siguientes hechos.**

-Mediante Resolución de la Alcaldía de fecha 17 de marzo de 2009, se acordó aprobar inicialmente el Estudio de Detalle en el ámbito 7.2.02 ALZUKAITZ.( Parcela 6).

Sometido el expediente al trámite de información pública mediante publicación de anuncios en el BOG nº 64 de fecha 6 de abril de 2009 y Diario Vasco de fecha 2 de abril de 2009, no se han presentado alegaciones.

-Se formula el Estudio de Detalle por el Gobierno Vasco, Departamento de Educación con el objeto de ajustar las condiciones de edificación de la parcela 6, calificada de EQUIPAMIENTO por el Plan Especial de Ordenación Urbana del citada ámbito, para su uso docente, modificando el volumen sobre rasante, rectificando así la ocupación en planta y las alineaciones y rasantes en respuesta a las condiciones de la oferta educativa que se pretende implantar.

Frente a una ocupación en planta de

1.039 m<sup>2</sup> azalera berria definitzen da, izan ere azalera handiagoa okupatuko duen eraikuntza bat eskatzen du ikastetxeak. Proposatzen den antolaketarekin eraikuntzaren perfil bi solairutara murrizten da, horrelako eraikin batentzako beharrezkoak diren irisgarritasun neurriak betetzearen.

#### **Ondorengo argudio hauek gogoan izanik:**

-Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 73. artikuluan aurreikusita dagoen Xehetasun Azterketa figuraren bitartez, aipatu ekipamenduzko lursailean finkatu nahi diren parametroak arautzen dira, zeinaren xedea zehazten den:

- a. Antolamendu xehatuan ezarritako lerrokadurak eta sestrak adierazi, zuzendu edo osatu.*
- b. Bolumenak antolatzea, dagokion planeamenduaren aurreikuspenak kontuan hartuz. Bolumenen birmoldaketa tipologiko edo morfológikoagatik beharrezkoa edo komenigarri denean, antolaketa honek lurzoruaren kalifikazioa jaso dezake bide berriak edo hornidura publiko berriak ezartzeko.....*

- Beraz, Xehetasun Azterketak antolaketa

360m<sup>2</sup> se define una nueva superficie de 1.039, m<sup>2</sup> ya que el edificio escolar exige una construcción que ocupe mayor superficie.

Con la ordenación propuesta se reduce el perfil de la edificación a dos plantas, favoreciendo las medidas de accesibilidad necesarias para un edificio de esas características.

#### **Considerando los siguientes argumentos:**

-Mediante la figura de los Estudios de Detalle prevista en el artículo 73 de la Ley 2/2006, de 30, de junio de Suelo y Urbanismo, se regulan los parámetros que se pretenden ajustar en la citada parcela de equipamiento, cuyo objeto queda circunscrito:

- a. El señalamiento, la rectificación o la complementación de las alineaciones y rasantes establecidas por la ordenación pormenorizada.*
- b. La ordenación de los volúmenes de acuerdo con las previsiones del planeamiento correspondiente. Cuando así sea necesario o conveniente por razón de la remodelación tipológica o morfológica de los volúmenes, esta ordenación puede comprender la calificación de suelo para el establecimiento de los nuevos viales o de nuevas dotaciones públicas.....*

xehatuan ezarritako ekipamenduzko lerrokadurak eta sestrak doitzen ditu, beraz, onartutako planeamenduzko aurreikuspenak kontuan hartuz antolatzen dira bolumenak, Artiako kanalaren tratamendurako irizpide gisa zehazten diren atzera-eramateak mantenduz.

Sestra berriak ezartzen dira eraikuntzarako baldintzak lehen zikloko eskola ekipamenduaren erabilerari egokitzeko, horrek esan nahi baitu plantan azalera handiagoa okupatzen duen erakina egitea, barrutiaren etorkizuneko erabiltzaile izango diren haurren beharretara moldatzeko.

Xehetasun Azterketak ez du lursaileko zoruan helburua aldatzen, ezta planeamenduak finkatzen duen  $1.692\text{ m}^2\text{c}$  neurriko gehienezko eraikigarritasun urbanistikoa gainditzen ere.

Eraikigarritasun osoa sestra gainean antolatzen da  $1.637\text{ m}^2\text{s}$  neurriko lursailean eta 2 solairutan, ondorengo parametroekin:

Antolatutako lursailaren azalera:  $1.637\text{ m}^2\text{s}$

Sestra gainean eraikitako azaleraren plantako okupazioa::  $1.039\text{ m}^2\text{s}$

Eraikitako gehienezko azalera:  $1.692\text{ m}^2\text{tc}$

Azkenik, proposatzen den antolaketa jabetza publikoko lursail baten barnean garatzen da.

-Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98. artikuluan agintzen dena kontuan hartuz, jende aurrean informatzeko epea igarota, Udalari egokituko zaio behin betiko onestea.

**-Hiri Garapena, Etxebizitza, Obrak eta Ingurumeneko Batzordeak 2009ko maiatzaren 18ko bileran azertu zuen espedientea.**

Ikusirik espedientean jasota dagoen

- Así, el Estudio de Detalle ajusta las alineaciones y rasantes del equipamiento establecidas en la ordenación pormenorizada, de forma que se ordenan los volúmenes de acuerdo con las previsiones del planeamiento aprobado manteniendo los retiros que se determinan como criterios para el tratamiento del canal Artía.

Se establecen nuevas rasantes con el fin de ajustar las condiciones de edificación al uso de equipamiento escolar de primer ciclo, lo que significa una edificación que ocupa mayor superficie en planta a efectos de ajustarse a las necesidades de los niños y niñas futuros ocupantes del recinto.

El Estudio de Detalle no altera el destino del suelo de la parcela ni incrementa la edificabilidad urbanística máxima fijada por el planeamiento en  $1.692\text{ m}^2\text{c}$ ,

La totalidad de la edificabilidad se ordena sobre rasante en una parcela de  $1.637\text{ m}^2\text{s}$  y 2 plantas con los siguientes parámetros:

Superficie de la parcela ordenada:  $1.637\text{ m}^2\text{s}$

Ocupación en planta de la superficie edificada sobre rasante:  $1.039\text{ m}^2\text{s}$

Superficie máxima construida::  $1.692\text{ m}^2\text{tc}$

Finalmente la ordenación propuesta se desarrolla dentro de una parcela de dominio público.

-De conformidad con lo dispuesto en el artículo 98 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, transcurrido el plazo de información pública, corresponderá al Ayuntamiento la aprobación definitiva.

**-Examinado el expediente en la sesión de la Comisión de Desarrollo Urbano, Vivienda, Obras Públicas y Medio Ambiente de fecha 18 de mayo de 2009.**

dokumentazioa

A la vista de la documentación obrante en el expediente

**Udal batzarrak zera erabaki du:**

*1.- ALZUKAITZ 7.2.02 ESPARRUAN (6. lursaila) Xehetasun Azterketa behin betiko onartzea.*

*2.- Erabaki hau finkoa da administrazio bidetik. Honen aurka, aukeran, berraztertzeko errekurtoa jar daiteke, administrazioarekiko auzi-errekurtoa baino lehen, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, edo bestela Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian zuzenean inugnatu, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, egoki irizten den beste edozein aurkeztetik at.*

**El Pleno de la Corporación acuerda:**

*1º.-Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle en el ámbito de ÁMBITO 7.2.02 ALZUKAITZ.(Parcela 6)*

*2º.- El presente acuerdo es firme en vía administrativa. Contra el mismo podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante la Sala de lo contencioso administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno.”*

**DEKRETUA:** Aurreko erabakian agindutako guztia beteko zaie interesatuei.

**DECRETO:** Se dará cumplimiento a los interesados de cuanto ordena el acuerdo anterior.

Hiri honetako Udal Txit Goreneko Alkate-Lehendakari jaunak agintzen eta sinatzen du, Irunen bi mila eta bederatziko maiatzaren 29an

Lo manda y firma el Señor Alcalde-Presidente del Excmo. Ayuntamiento de esta ciudad de Irun, a 29 de mayo de dos mil nueve, certifico

ALKATEA / EL ALCALDE,

IDAZKARIA / EL SECRETARIO,

**DILIJENTZIA:** Data honetan betetzen da agindutakoa, ziurtatzen dut.

**DILIGENCIA.-** Con esta fecha se cumple lo ordenado, certifico